"Ante la situación en que se encuentra el preso vitoriano Oier Gómez Mielgo, que cumple pena privativa de prisión en la cárcel de Meaux (Francia), gravemente enfermo por padecer un sarcoma de Ewing con metástasis en cabeza y pelvis. Por todo ello, tomando en consideración su situación:

- 1- *El ayuntamiento de Durango solicita a las autoridades francesas competentes tengan en cuenta en las decisiones a adoptar en fechas próximas sobre la situación penitenciaria de Oier Gómez Mielgo, la legislación vigente, nacional e internacional, para la excarcelación para aquellas personas presas que sufren graves enfermedades.*
- 2- *El ayuntamiento de Durango trasladará este acuerdo al juzgado que debe decidir sobre la situación penitenciaria de Oier Gómez Mielgo, así como al Ministerio de Justicia francés, bajo cuya jurisdicción y tutela se encuentra."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu):** Traemos esta moción porque consideramos que es un problema social y porque en Durango existe un caso muy similar.

El del preso vitoriano Oier Gomez Mielgo, que cumple condena en la cárcel de Meaux (Francia). Está afectado por el sarcoma Ewing, que le ocasiona metástasis en la cabeza y la pelvis. Está muy enfermo.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Hori dela eta, bere egoera kontuan hartuta:

1.- Durangoko Udalak eskumena duten frantziar agintariei eskatzen die gaixotasun larriak sufritzen dituzten presoak askatzeko, indarrean dagoen legegida -nazionala zein nazioartekoa- aintzat har dezatela datozen egunotan Oier Gomez Mielgoren kartzela egoeraren inguruan hartu behar dituzten erabakietan.

2.- Durangoko Udalak akordio hau helaraziko dio Oier Gomez Mielgoren kartzela egoerari buruz erabaki behar duen epaitegiari, bai eta Frantziako Justizia Ministerioari ere, Gomez haren jurisdikziopean eta babespean baitago.

* **Garate Mintegui jaunak (PP):** ETako presoekin zerikusia duen kontu baten gainean ari gara eztabaidatzen berriro. Eta EH Bilduk gai honen inguruko proposamen bat egiten duen bakoitzean bezalaxe, nahasmenduaren zeremonian kokatu nahi gaitu. Manipulazio, desitxuratze eta gezur interesatuak dira, EH Bilduk aurkezten dituen ekimenen nortasun-zeinuak.

Hortaz, horrenbeste manipulazioarekin, ezker erradikalak jarri nahi duen "legedi-itzalaldiaren" aurrean errealitatea argituko duen argi pixka bat botatzea komeni da.

Espetxeen Lege Organiko Orokorren 3. artikulua ezartzen duenez, espetxeratutako giza-izaera eta horien eskubide zein interes juridikoak errespetatu egingo da, beti, espetxeetako jarduna, eta Espetxeetako Administrazioari dagokio horien bizitza, osotasuna eta osasuna zaintzea.

Legezko agindu hori eraginkor egiteko, osasun-arreta osoa ematen zaie espetxe-establezimendu batean sartuta dauden pertsonen, eta, osasun-arreta horren barruan, prebentziorako, sendaketarako eta errehabilitaziorako neurriak daude. Biztanle guztiei ematen zaienaren antzekoa da.

Horretarako, bere osasun-baliabideak eta profesionalak dauzka Espetxeetako Administrazioak, eta Osasun Sistema Nazionalak ematen duen arreta espezializaturako sarbidea dauka.

En consecuencia, y teniendo en cuenta su situación:

1.- El Ayuntamiento de Durango pide a las autoridades francesas competentes que libere a los presos que sufren enfermedades graves, y que tome en consideración la legislación -nacional como internacional- en los próximos días en los cuales han de tomar una decisión en torno a la situación carcelaria de Oier Gomez Mielgo.

2.- El Ayuntamiento de Durango dará traslado de este acuerdo al juzgado que tenga que decidir sobre la situación carcelaria de Oier Gomez Mielgo, así como al Ministro de Justicia de Francia, ya que Gomez se encuentra en su jurisdicción y bajo su protección.


* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP):** Volveremos a debatir una cuestión relacionada con los presos de ETA. Y como siempre que EH Bildu realiza una proposición sobre esta materia, pretende instalarnos en la ceremonia de la confusión. Manipulaciones, tergiversaciones, y falsedades interesadas, son las señas de identidad de las iniciativas presentadas por EH Bildu.

Por tanto, ante tanta manipulación conviene arrojar un poco de luz que alumbre la realidad, frente al "apagón" legislativo que pretende instalar la izquierda radical.

El artículo 3 de la Ley Orgánica General Penitenciaria establece que la actividad penitenciaria se ejercerá respetando, en todo caso, la personalidad humana de los reclusos y los derechos e intereses jurídicos de los mismos, siendo la Administración Penitenciaria la encargada de velar por la vida, la integridad y la salud de los internos.

Para hacer efectivo este mandato legislativo, a las personas ingresadas en un establecimiento penitenciario se les facilita una atención sanitaria de carácter integral, que incluye medidas tendentes a la prevención, la curación y la rehabilitación de los internos, equivalente a la dispensada al conjunto de la población.

Para ello, la Administración Penitenciaria cuenta con recursos y profesionales sanitarios propios, así como con acceso a la atención especializada que dispensa el Sistema Nacional de Salud.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Hortaz, gure lege-sistemak bitarteko egokiak ematen dizkie presoek, edozein inguruabarretan bermatu ahal izateko osasun-arreta egokia jasotzeko eskubidea.

Era berean, oso komenigarri ikusten dugu larri gaixo dauden presoak kartzelatik ateratzeko lege ezarrita dagoen prozedura azaltzea.

Espetxeetako Araudiaren 104.4. artikulua hau adierazten du: *"gaixotasun sendaezinak dituzten eta larri gaixo dauden zigortuak, mediku-txostenaren arabera eta sailkapen-prozesuan esku hartzen duten aldagaiak gorabehera, hirugarren graduan sailkatu ahalko dira, arrazoi humanitarioak eta pertsonen duintasunari dagozkion arrazoiak tarteko, delitu egiteko zailtasunari eta arriskugarritasun urriari erreparatuta".*

Legezko manu hori ezartzeko kasuak zehazte aldera, baita presoari baldintzapeko askatasuna emateko aukera zehazte aldera ere, 1/2000 instrukzioa idatzi zuten espetxe-erakundeek. Bertan, irizpide batzuk ezarri ziren, horien bitartez baloratzeko gaixotasun bat oso larritzat jo daitekeen eta presoaren bizitzarako ageriko arriskurik dagoen.

Presoa aipatutako instrukzioan jasotako inguruabarretako batean baldin badago, mediku-zerbitzuek espetxe-erakundeei jakinarazi beharko diete hori; izan ere, hau ezartzen du Zigor Kodearen 91.2. artikulua: *"baldintzapeko askatasunaren espedientea igoko dio, kasuak behar duen premiaz, Espetxe Zaintzako epaileari, eta horrek, espedientea ebazteko orduan, delitu egiteko zailtasuna eta arriskugarritasun urria baloratuko ditu".*

Legezko testu horren 91.3. artikulua hau xedatzen du: *"espetxeratuaren bizitza gaixotasunaren ondorioz arriskuan dagoela agerikoa bada, auzitegi-medikuaren eta espetxe-establezimenduko mediku-zerbitzuen irizpenak hala egiaztatzen duelako, Espetxe Zaintzako epaiak (hala badagokio, gradu-aurreztatzea egin ondoren) baldintzapeko askatasuna baimendu ahalko du, espetxe-zentroari azken pronostiko-txostena eskatzeko izapide baka-rrarekin, aurreko paragrafoan aipatu den balorazioa egin ahal izateko xedez".*

Por tanto, nuestro sistema legal ofrece a los reclusos los medios adecuados para garantizar su derecho a una adecuada atención sanitaria bajo cualquier circunstancia.


Creemos, asimismo, muy conveniente aclarar el procedimiento legalmente establecido para la excarcelación de los presos gravemente enfermos.

El Artículo 104.4 del Reglamento Penitenciario indica que *"los penados enfermos muy graves con padecimientos incurables, según informe médico con independencia de las variables intervinientes en el proceso de clasificación, podrán ser clasificados en tercer grado por razones humanitarias y de dignidad personal, atendiendo a la dificultad para delinquir y a su escasa peligrosidad"*.

Para concretar los supuestos en los que se debe aplicar este precepto legal, así como la posibilidad de conceder con posterioridad la libertad condicional del preso, instituciones penitenciarias dictó la instrucción 1/2000, donde fijaba los criterios mediante los cuales se valora si una enfermedad debe ser considerada como muy grave y si existe un riesgo patente para la vida del recluso.

Si el preso se encuentra en alguna de las circunstancias recogidas en la citada instrucción, los servicios médicos deben comunicarlo a Instituciones Penitenciarias que según lo establecido en el artículo 91.2º del Código Penal, *"elevará el expediente de libertad condicional, con la urgencia que el caso requiera al juez de Vigilancia Penitenciaria que a la hora de resolverlo valorará la dificultad para delinquir y la escasa peligrosidad"*.

El artículo 91.3º del citado texto legal, expresa que *"si el peligro para la vida del interno a causa de su enfermedad fuera patente, por estar así acreditado por el dictamen del médico forense y de los servicios médicos del establecimiento penitenciario, el juez de Vigilancia Penitenciaria podrá, previa en su caso la progresión de grado, autorizar la libertad condicional sin más trámite que requerir al centro penitenciario el informe de pronóstico final, al objeto de poder hacer la valoración a la que se refiere el párrafo anterior"*.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Beraz, preso gaixo larriei dagokienean, mediku-irizpide zorrotzen pean eta azken pronostikoan oinarrituta hartzen da gradu-aurreratzearen eta geroko baldintzapeko askatasunaren gaineko erabakia. Espetxe-erakundeek eta Espetxe Zaintzako epaileak berak horien gainean oinarrituta hartzen dituzte erabakiak.

Zorionez, sistema guztiz bermatzailea dugu, erabakiak ez dira hartzen irizpide arbitrarioen arabera, baizik eta berariaz zuzenbidearekin bat egiten duten parametroen mende.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Isilik, mesedez, horrela ezin da ezer entzun. Isiltasuna behar dugu.

* Garate Mintegui jaunak (PP): Horrenbestez, espetxe-erakundeek ez badute gradu-aurreratzea eman, eta Espetxe Zaintzak ez badu egoki ikusi mozioan aipatzen diren presoek baldintzapeko askatasuna ematea, besterik gabe, eskatzen diren irizpideak betetzen ez dituztelako da.

Eta gauza bera espetxe-sistema frantziarrerako.

Guztiok dakigu zer-nolako papera duten presoek ETArekin sarean. Guztiok dakigu ETAk garaitutza duela bere burua, eta, beraz, hiltzeari uzteagatik edozein lurraldetasun-asmo lortzeko ideia bazter utzita, presoetan jarri du ETAk bere aldarrikapenen oinarritzeko fokua.

ETAk bere presoak jarri ditu eztabaidaren erdigunean, horiek trukeko txanpon gisa erabiltzeko xedez. Alabaina, ETAk jakin egin behar du gobernuak ez duela amore emango talde terroristaren asmoen aurrean, ezta pixka bat ere.

Hau da, bakea autodeterminazioarekin trukatzeko nahia alboratu ondoren, bakea presoekin trukatzeko jardunean egin du ahalegin guztia.

Eta ETAk azken truke hori onartu du, ohorezko irteera behar baitu barne-kontsumoaren terminoetan, zuzenbide-estatuak eragindako porrot politikoa dela-eta.

Por lo tanto, la decisión sobre la progresión de grado y la posterior concesión de la libertad condicional para los presos enfermos se realiza bajo estrictos criterios médicos y en base a su pronóstico final, sobre los cuales instituciones penitenciarias y el propio juez de vigilancia penitenciaria adoptan sus decisiones.

Afortunadamente disfrutamos de un sistema plenamente garantista, donde las decisiones no se adoptan bajo criterios discrecionales o arbitrarios, sino bajo parámetros exclusivamente ajustados a derecho.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Silencio, por favor, así no se puede escuchar nada. Necesitamos silencio.

* Concejal Sr. Garate Mintegui (PP): Por tanto, si instituciones penitenciarias no ha concedido la progresión de grado y el Juez de Vigilancia Penitenciaria no ha considerado oportuno conceder la libertad condicional a los presos a los que alude la moción, es simplemente, porque no cumplen con los criterios exigidos.


Y esto mismo vale para el sistema penitenciario francés.

Todos somos conscientes del papel que para el entramado de ETA juegan los presos. Todos sabemos que ETA se sabe derrotada y, que por tanto, desterrada la consecución de cualquier aspiración territorial por dejar de matar, ETA ha puesto el foco fundamental de sus reivindicaciones en sus presos.

ETA ha puesto en el centro del debate a sus presos con el objeto de utilizarlos como moneda de cambio, pero ETA debe saber que el gobierno no cederá ni un ápice a las pretensiones de la banda terrorista.

Es decir, una vez desterrada su aspiración de canjear paz por autodeterminación, ETA ha volcado sus esfuerzos en intercambiar paz por presos.

Y ETA ha aceptado este último canje, porque necesita una salida honrosa en términos de consumo interno, ante la derrota política infringida por el estado de derecho.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2017ko Apirilaren 25a

Acta 25 de Abril de 2017

ETAk ez du lortu bere asmo eta aldarrikapen politiko historikoetako bakar bat ere, eta, beraz, bere garaipentzat aurkeztu behar ditu presoak, ezinbestean, bere porrota kamuflatu, makillatu eta zuritu ahal izateko.

Baina demokrazia ez dago ETaren eta bere sarearen beharrak zein premia politikoak konpontzeko.

Banda horrek berak ezin hobeto diseinatu eta planifikatu duen estrategia politikoaren zati dira presoak. ETAk biktima gisa aurkeztu nahi ditu bere espetxeratuak, eta simetria bat ezarri nahi du horrekin, sufrimenduei eta, beraz, erantzukizunei dagokienez.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Etenaldia egingo dugu, ezinezkoa da hau horrela mantentzea. Bost minutuko etenaldia izango da.

-- 18:00-ak orduak izanez, 5 minutuko etenaldia gertatzen da.--

-- Momento honetan, Alkate andrearen baimenaz, 4. Alkate Ordea Diaz Basterra andrea (EAJ/PNV) eta Guridi Ordeñana jauna (EAJ/PNV) Batzar Aretotik irteten dira.--

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Alderdi Popularreko Bozeramalea ari zen hitz egiten.

* Garate Mintegui jaunak (PP): ETAk presoen kolektiboa erabiltzen du, eta biktima bihurtzen ditu modu bidegabean espetxeratuta dituen estatu baten aurrean.

Presoekin zerikusia duen guztia handiesten da, eta manipulatzeko, beren eskubideak zapaltzeko eta errespetatzeko ez dituzten sistema eta estatu baten biktimatzat har ditzaten bere fededunek.

Estrategia hori, baina, ez da berria, eta oso ohikoa izaten da edozelako talde terroristatan. Azken batean, antolakundearen martiri bihurtzen dira presoak, pilatutako horrenbeste sufrimenduren aurrean lotsagabe eta errukigabe agertzen den estatu baten aurrean. Hau da, alderantzizko mundua da.

ETA no ha conseguido ninguna de sus aspiraciones ni reivindicaciones políticas históricas y, por tanto, necesita de forma imperiosa presentar a los presos como su victoria que le permita camuflar, maquillar, y blanquear su propia derrota.

Pero la democracia no está para resolver las necesidades ni las urgencias políticas de ETA y de todo su entramado.

Los presos forman parte de una estrategia política perfectamente diseñada y planificada por la propia banda. ETA pretende presentar a sus reclusos como sus propias víctimas, tratando de establecer con ello, una simetría en materia de sufrimientos y por tanto, de responsabilidades.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Vamos a hacer un descanso, ya que esto es insostenible. La pausa será de cinco minutos.

-- Siendo las 18:00 horas, se produce un receso de 5 minutos.--


-- En este momento, con permiso de la Presidencia, abandonan la Sala Capitular la 4ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV) y el Concejal Sr. Guridi Ordeñana (EAJ/PNV).--

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Estaba hablando el Portavoz del Partido Popular.

* Concejal Sr. Garate Mintegui (PP): ETA instrumentaliza al colectivo de presos tratando de victimizarles ante un estado que los mantiene encarcelados de forma injusta.

Todo lo relacionado con los presos se magnifica y se manipula para que su propia feligresía los considere víctimas de un sistema y de un estado que oprime y no respeta sus derechos.

Pero esta estrategia no supone novedad alguna y es muy común en cualquier tipo de organización terrorista. En definitiva; los presos convertidos en mártires de la organización, frente a un estado impío e inmisericorde ante tanto sufrimiento acumulado. Es decir, el mundo al revés.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

*** Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea):**

Gure ustean, giza eskubideak pertsona guztientzat berberak izatea da zuzenbideari dagokiona, beren baldintzak edozein izanda ere.

*** Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):**

EAJren partez nik hartuko dut hitza, esateko edukiarekin guztiz ados gaudela. EAJren jarrera, bai Arabako Batzar Nagusietan, bai Eusko Legebiltzarrean, aldekoa izan da. Beraz, edukiarekin ez daukagu inolako arazorik, baina formarekin arazo larri bat daukagu: hain zuzen ere, ezin dugula baimendu herririk herri, alde guztietan, mota hone-tako mozioak, presoek buruzkoak ekartzea. Beraz, ez dugu aldeko bozka emango.

*** Uribe Padilla andreak (EH Bildu):** Benetan, hitz barik geratu naiz. Azkenean, ikusita Durangon zer gertatzen ari den Gorka Frailerekin, hau bozkatzea logikoa zela pentsatu dugu.

Alderdi Popularreko Bozeramaleari erantzuten hasiko naiz. Esan du ETArekin mozio baten aurrean gaudela, eta ezetz esan behar diot; giza eskubideen aldeko mozio baten aurrean gaude. Orain esan dituen gezurrak eta arinago esandakoak entzunda, lehen norbaitek zalantza txikiren bat izango balu, orain ez zaio inolako zalantzarik gertuko. Azken finean sexu jazarpen baten aurrean gaude, ezin dugu ahaztu denuntzia bat daukan pertsona baten hitzak direla eta, guretzat komentatu guztiak ez dauka inolako sinesgarritasunik.

Esan behar zaio baita ere Frantzia eta Espainiako legeak ez direla igualak, eta gainera ez da arduratu jakiten zein den preso honen benetako egoera. Gai oso delikatu baten eztabaidaren aurrean gaude, eta ezin dugu ahaztu durangar bat egoera antzekoan dagoela. Poztu egin gara atzo Frantziak hartutako erabakiarekin.

Gaixotasun latzak espetxean bizitzea heriotza zigorra bezalakoa da; espetxeak asko kaltetzen du egoera, eta, legea aplikatuko balitz, gaixo larriek etxean egon behar lukete.

*** Concejala Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea):** Creemos que lo que es de derecho es que los derechos humanos sean iguales para todas las personas sean cuales sean las condiciones.

*** Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):**


Yo he tomado la palabra de parte del PNV, para decir que estamos totalmente de acuerdo con el contenido. El PNV ha tenido una postura favorable tanto en las Juntas Generales de Álava como en el Parlamento Vasco. En consecuencia, no ponemos ninguna objeción al contenido, pero sí a las formas: precisamente, no podemos permitir que de pueblo en pueblo, en todos lados, se presenten este tipo de mociones sobre los presos. Por eso, no votaremos a favor.

*** Concejala Sra. Uribe Padilla (EH Bildu):** Me he quedado sin palabras, de verdad. Al fin y al cabo, en vista de lo que está ocurriendo en Durango con Gorka Fraile, hemos pensado que es lógico votar esto.

Comenzaré respondiendo al Portavoz del Partido Popular. Ha dicho que estamos ante una moción de ETA. Yo le he contestado que no, que estamos ante una moción a favor de los derechos humanos. Habiendo escuchado las mentiras que acaba de decir y las que previamente ha dicho, si alguien tenía alguna pequeña duda, ahora no le quedará ninguna. Al fin y al cabo estamos ante una agresión sexual. No podemos olvidar que son palabras de una persona que ha sido denunciada, y por eso, para nosotros nada de lo que ha comentado tiene credibilidad alguna.

Además, hay que decirle que las leyes españolas y francesas no son iguales. Y por si fuera poco, no se ha preocupado de conocer la situación de este preso. Estamos abordando un tema muy delicado, y no podemos dejar de lado que un durangués está en una situación parecida. Nos ha alegrado la decisión tomada ayer por Francia.

Sufrir enfermedades graves en prisión es como la pena de muerte. La prisión empeora mucho la situación, y si se aplicara la ley, esos presos enfermos de gravedad deberían estar en sus casas.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Faltan botatzen dugu egoera hau muturreraino eramanez izana epaitegiak mugitzen hasteko. Gorai-patu nahi dugu horrelako egoera baten aurrean gizarteak izan duen erantzuna. Giza eskubideak betetze aldera beti jarraituko dugu lanean eta guztioi egiten dizuegu deia horrela jarraitzeko.

* **Garate Mintegui jaunak (PP):** Ozen eta argi adierazi nahi dugu gure herrialdean, baita espetxeetako zuzenbidean ere, printzipio humanitarioak agintzen duela beste edozein inguruabarren gainean.

Gure espetxeetako sistemak bere eskuzabaltasuna erakutsi du, baita guztiz arbuigarriak diren delituak egin dituztenekin ere.

Gure demokraziak pertsonen osotasuna eta duintasuna lehenesten ditu bestelako edozein aldagai motaren aurretik, eta guztiok gogoratzen ditugu kasu oso zehatzak, non zuzenbideko estatuak zorrotz ezarri dituen legezko parametroak preso gaixoei zerikusia duen guztian, erabaki oso mingarriak izan diren arren.

Horren erakusgarri da atzo, hilaren 24an, Parisko Apelazio Auzitegiak hartu zuen erabakia; izan ere, Oier Gómez Mielgo presoak duen kondena eten zuen, nahiz eta datorren asteazkenean aztertuko diren hiru euro-aginduen ebazpena emateko dagoen.

Ez dugu utziko gure demokraziak eskaintzen dituen bermeak zalantzan jar ditzaten. Giza eskubideen gaiari dagokionez, ez diogu inori onartuko lezio etikorik; are gutxiago gaur gaurkoz ETArek erailketak kondenatzeko gai izan ez direnei.

Bilduko jaun/andreok, dispertsioa eta espetxeetako politikaren malgutasuna ez daude gobernuaren mende, ETArek erabakiaren mende baizik.

* **Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):** Mesedez, isiltasuna behar dugu. Isildu mesedez.

Echamos en falta que se haya llevado esta tesitura al extremo, para movilizar los juzgados. Queremos ensalzar la respuesta que ha dado la sociedad ante una situación de este tipo. Seguiremos trabajando comprometidos con los derechos humanos, y os convocamos a todos para que sigáis en ese camino.

* **Concejal Sr. Garate Mintegui (PP):** Queremos expresar alto y claro que en nuestro país rige también en el derecho penitenciario, el principio humanitario sobre cualquier otra circunstancia.

Nuestro sistema penitenciario ha dado muestras de su magnanimidad y de su generosidad, también con aquellos que han cometido delitos totalmente rechazables.


Nuestra democracia antepone la integridad y la dignidad de la persona a cualquier otro tipo de variable, y todos recordamos casos muy concretos en el que el Estado de Derecho en lo relacionado con los presos enfermos, y a pesar de que las decisiones han sido muy dolorosas, ha aplicado de forma estricta los parámetros legales.

Buena prueba de ello es la decisión adoptada ayer, día 24, por el Tribunal de Apelación de París, en el sentido de suspender la condena que pesa sobre el preso Oier Gómez Mielgo, si bien se está a la espera de la resolución de las tres euro-órdenes que se analizarán el próximo miércoles.

No vamos a permitir que nadie ponga en cuestión las garantías que ofrece nuestra democracia. No vamos a aceptar lecciones éticas en materia de derechos humanos por parte de nadie y, mucho menos, por quienes a fecha de hoy todavía no han sido capaces de condenar los asesinatos de ETA.

Señores de Bildu, la dispersión y la flexibilización de la política penitenciaria no depende del gobierno, sino exclusivamente de la decisión de ETA.

* **Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** Por favor, necesitamos silencio. Callaos, por favor.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2017ko Apirilaren 25a

Acta 25 de Abril de 2017

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu):** Alderdi Popularrereko Bozeramaileari erantzunez, zure herrialdea eta nirea ez direla berbera, eta, beraz, ez dudala sentitu ahotan hartu naizunik. "Justiziak esku zabaltasun-adibideak eman ditu", jakina, PPrekin, infantarekin eta beste zenbati kasutan. Eta, zoritxarrez, hori horrela da eta horrela ez izateko lanean jarraituko dugu.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaixa hauxe:

- Aldeko botoak: HAMABI, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrako botoak: ZAZPI, 6 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **ONARTU EGIN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

ZAZPI.- MAIATZEKO OSOKO BILKURAREN EGUNA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):** Proposamena hurrengo da, maiatzaren 30eko data aurreratzea aste bete, maiatzaren 23ra.

-- *Momentu honetan, 19:05-ak orduak izanez, 4. Alkate Ordea Díaz Basterra andrea (EAJ/PNV) Batzar Aretora sartzen da.--*

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu):** Eskatera nik egin dut egun horietan kongresu bat daukadalako Italian eta ezin naizelako etorri. Eskatera egin dut eta alkate andreak bideratu du. Lehen kritika egin dudan moduan, orain publikoki eskertu nahi diot bere jarrera.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu):** Respondiendo al Portavoz del Partido Popular, que tu país y el mío no son el mismo, así que no me siento aludida en ningún momento. "La justicia ha dado ejemplo de magnanimidad"; claro, sobre todo con el PP, con la infanta y unos cuantos casos más. Y por desgracia, esto es así y seguiremos trabajando para que no sea así.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DOCE, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: SIETE, 6 del Partido Nacionalista Vasco y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

En su vista,


EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita.

SIETE.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA FECHA DEL PLENO ORDINARIO DEL MES DE MAYO.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** La propuesta es la siguiente: adelantar una semana la fecha del 30 de mayo, al 23 de mayo.

-- *En este momento, siendo las 19:05 horas, entra en la Sala Capitular la 4ª Tnte. de Alcalde Sra. Díaz Basterra (EAJ/PNV).--*

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu):** Yo he hecho la petición porque en esos días tengo un congreso en Italia y no podré venir. He hecho la petición y la señora Alcaldesa le ha dado curso. Al igual que antes la he criticado, ahora quiero agradecer públicamente su postura.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, hurrengo osoko bilkura maiatzaren 30ean izan beharrean **Maiatzaren 23an** izatea onartu du.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda adelantar la sesión plenaria ordinaria del mes de **Mayo** del día 30 al **23**.

ZORTZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.

➤ Maeztu Perez jaunak (EH Bildu):

- o Orain dela gutxi irakurri genuen komunikabide batek Alkate andreari egindako elkarriketa batean PERI Ferrocarril bezala eza gutzen diren lurzoruak Durangoko biriki berdeak bihurtu behar zirela. Aspalditik ari gara gauza bera aldarrikatzen, prest gaude gai honetaz hitz egiteko. Kontua da gaur egun onartuta dagoen PERIa edo hirigintza-ren plan berezia garatzen baldin bada, porlanez beteko dela gune hori eta berdea baino grisa izango dela hango kolorea. Beraz, jakin nahi dugu zelan dagoen gai hori; hitzarmen bat sinatu behar da ETSrekin, eta guk gure prestutasuna erakusten dugu horren inguruan hitz egiteko. Era berean, jakin nahi dugu zein den gobernuaren jarrera gai honetan.
- o Argindarraren kontratazioa: mozio bat onartu genuen osoko bilkura honetan eta ez dakigu zelan dagoen. Erabaki zen enpresa bat kontratatzea argindarraren eta uraren kontsumoen inguruan auditoria bat egiteko, eta jakin nahi dugu zelan doan gai hori.

Bizkaiko Foru Aldundiak erosketak egiteko zentral bat jarri nahi du martxan, erosketa guztiak zentralizatzeko -eta, era berean, argindarrarena- eta hori gure mozioaren kontra doa.

Badakigu udaletara galdetegi bat bidali dutela jakiteko zeintzuk diren kontsumoak.


OCHO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

➤ Concejal Sr. Maeztu Perez (EH Bildu):

- o Recientemente leímos en una entrevista realizada por un medio de comunicación a la Alcaldesa que los terrenos conocidos como PERI Ferrocarril deben convertirse en el pulmón verde de Durango. Hace tiempo que reivindicamos lo mismo, y estamos dispuestos a hablar del tema. La cuestión es que si se desarrolla el PERI o plan especial de urbanización aprobado hoy día, esa zona se llenará de cemento, y en vez de ser verde, será gris. Por eso, queremos conocer la situación en la que se encuentra ese tema. Hay que firmar un convenio con la RVT, y nosotros mostramos disposición para hablar acerca de ello. Asimismo, queremos saber cuál es la postura del gobierno sobre este tema.
- o Contratación del suministro eléctrico: este pleno aprobó una moción y no sabemos en qué estado se encuentra. Se decidió contratar a una empresa para el suministro eléctrico y para hacer una auditoría sobre el consumo de agua. Pues bien, queremos saber qué es de eso.

La Diputación Foral de Bizkaia quiere poner en marcha una central para hacer compras, para centralizar todas esas compras -y a su vez, la del suministro eléctrico-, y eso va en contra de nuestra moción.

Somos conocedores de que han enviado un formulario a los ayuntamientos para saber cuáles son los consumos.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2017ko Apirilaren 25a

Acta 25 de Abril de 2017

Gure eskaera da inkesta hori ez betetzea beste alde batetik egingo dugulako. Erosketa ez egitea Bizkaiko Foru Aldundiaren zentraletik; gure eskaera da energia berriztagarriak eskaintzen duen kooperatiba batekin egitea. Jakin nahi dugu ea zerbait bidali den diputaziora eta gobernuak mantentzen duen ala ez bere garaian onartutako mozioa.

- o Gaur euria egin du eta ikusi dugu zein izan den Madalengan jarritako markesinaren eraginkortasuna; 9 pertsona egon dira bertan estalita, eta jakin nahi dugu ea gobernuarentzat -bereziki alderdi sozialistarentzat- 30.000 biztanle duen herri batean, Bizkaiko 10 linea gelditzen diren herri batean, Gipuzkoatik 3 eta Arabatik 1, beraz konexio gune nahiko nabarmena den toki batean, 9 pertsonentzako markesina bat jartzea geltoki duin bat den ala ez.
- o IBI: hemen mozio bat onartu zen diputazioari eskatzeko Durangon egindako balorazioaren berraztertze bat egitea. Zerbait dakigu horretaz?
- o Bukatzeko, likidazioaren inguruan. Gaur kontu emate arloan likidazioaren informazioa eman da, eta gogorarazi nahi dugu bere garaian Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Durangoren inguruan egindako txostenean zer aipatzen zuen geldikinen inguruan.

2015ean esaten zuen: *"Durangoko Udalak 2015eko aurrekontuetan sartu zituen 2014ko aurrekontuetako gastu-kredituak, 4,1 milioi euroren zenbatekoan, ohiko gastuetarako, 715.427 euro tartean sartu gabe, baina aurrekontuen araudiak kreditu mota horiek sartzea ahalbidetzen du bakar-bakarrik diru-sarrera finalistekin finantzatzeko badira, eta inguruabar hori ez da egiaztatu".*


Guk ikusi dugu likidazioan berriz ere jarraitzen dela, lehen egiten zen bezala, geldikinak hurrengo urtera pasatzen, eta

Nosotros pedimos que no se rellene esa encuesta, porque lo vamos a averiguar por otro lado. No comprar desde la central de la Diputación Foral de Bizkaia; nuestra petición es hacerlo mediante una cooperativa que ofrezca energías renovables. Queremos saber si se ha enviado algo a la Diputación, y si el gobierno mantiene o no la moción aprobada en su momento.

- o Hoy ha llovido y hemos podido apreciar la eficacia de la marquesina puesta en la Madalena. 9 personas se han refugiado ahí, y queremos saber si para el gobierno -especialmente, para el Partido Socialista- es digno colocar una marquesina con capacidad para 9 personas en un municipio de 30.000 habitantes, por el que transcurren 10 líneas de Bizkaia, 3 de Gipuzkoa y 1 de Álava, es decir, en un municipio que es un punto de conexión importante.
- o IBI: se aprobó una moción para solicitar a la Diputación que realizase un nuevo análisis de la valoración efectuada. ¿Sabemos algo al respecto?
- o Para finalizar, abordaré el tema de la liquidación. Hoy se ha informado acerca de la liquidación en la dación de cuenta, y queremos traer a la memoria lo que en su momento el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas mencionó sobre Durango en el informe que hizo sobre los remanentes.

En 2015 dijo lo siguiente: *"El Ayuntamiento de Durango incorporó al presupuesto del 2015 créditos de gasto que ya habían sido al presupuesto de 2014, por 4,1 millones de euros y créditos para gasto corriente sin comprometer por 715.427 euros cuando la normativa presupuestaria tan solo permite incorporar este tipo de créditos cuando se financian con ingresos finalistas, circunstancia que no se acredita".*

Hemos visto que, como se hacía antes, en la liquidación se siguen pasando los remanentes al siguiente año, y creemos



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2017ko Apirilaren 25a

Acta 25 de Abril de 2017

uste dugu hori ez dela zuzena. Beraz, eskatzen dugu argitzea zelan egiten den eta zergatik jarraitzen den berdin egiten.


que eso no es correcto. Por eso, pedimos que se aclare cómo se hace y por qué se sigue actuando de igual manera.

Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):

- Ezin ditut galdera guztiak erantzun hemen, ez dauzkadalako datu guztiak. PERI Ferrocarril-arena azken hirigintza batzordean presidenteak berak adierazi zuen hile honetan tratatuko dela hirigintza batzordean, beraz, zuzenean honek guztiak bertara bideratuko ditut.
- Argindarraren kontratazioarena: mantendu egiten dugu hartutako konpromisoa, eta argindarraren asuntia joango da joan behar den bidetik; hain zuzen ere, Durangoko Udalean hartutako akordioaren bidetik, eta ez Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio zentraletik. Eta gainera esan behar dut ez dela auditoria enpresa bat, baizik eta gure kontsumoak kontrolatzen eta jaisten, ahal den neurrian, lagunduko digun kooperatiba bat da.
- Markesinaren inguruko galdera Hirigintza Batzordera bideratuko dut.
- IBIaren mozioa: Foru Aldundiari eskatuta dago, baina ez dugu inolako erantzunik jaso. Berriz ere egingo dut eskaera.
- Likidazioarena: dakizunez kontu auzitegiak bere txostenean arlo bi bereizten ditu; alde batetik, legalitatearen betepenaren zatia - eta adierazten duena da bete beharreko arauak eta ez irizpideak- eta badago beste zati bat "Consideraciones" deritzona, eta bertan euren iritzia azaltzen dute gauza batzuei buruz.
- Adibidez, esaten digu zer dela eta egiten dugun hitzarmen bat Zabalarra edo/eta Landako eskolarekin argindarra eta beste gauza batzuk bertatik ordaintzeko, adieraziz udalak berak ordaindu beharko lituzkeela.

Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):

- No puedo dar respuesta a todas las preguntas aquí, pues no cuento con todos los datos. En lo que respecta al PERI Ferrocarril, el presidente indicó en la última comisión de urbanismo que el tema se tratará este mes en la comisión de urbanismo. Así que remito todas estas cuestiones a dicha comisión.
- Respecto a la contratación del suministro eléctrico: mantenemos nuestro compromiso, y este tema se llevará por donde haya que llevarlo, precisamente, por el camino del acuerdo adoptado en el Ayuntamiento de Durango, y no por la contratación central de la Diputación Foral de Bizkaia. Además de eso, he de decir que no se trata de una empresa auditora, sino de una cooperativa que, en la medida de lo posible, nos ayudará a controlar y bajar nuestros consumos.
- La pregunta relacionada con la marquesina la remito a la Comisión de Urbanismo.
- Moción de IBI: se le ha hecho la petición a la Diputación Foral, pero no hemos recibido ninguna respuesta. Realizaré la petición de nuevo.
- Sobre la liquidación: como sabéis, el juzgado de cuentas diferencia dos apartados en su informe. Por un lado, lo respectivo al cumplimiento de la legalidad -este apartado indica las normas y criterios que hay que cumplir-; por otro lado, existe un apartado llamado «consideraciones», en el que exponen su opinión acerca de ciertos temas.
- Por ejemplo, nos pregunta que a razón de qué hemos llegado a un acuerdo con las escuelas Zabalarra y Landako para pagar el suministro eléctrico y otros recibos por ese medio, e indica que debería pagarlos el mismo ayuntamiento.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Guk aspalditik egiten dugu hori hitzarmen bidez, eta, printzipioz, zure irizpideari jarraituz, hitzarmen horiek bertan behera geratu beharko ziren eta zuzenean guk hartu beharko genituen gure gain horiek guztiak. Eta hori eskolen irizpidearen kontrakoa litzateke. Eta horrela adierazi genuen Ogasun batzordean; hau da, ez geundela ados, gure iritzia zela auzitegiaren bezain baliagarria, eta gauzak egon diren moduan mantenduko ditugula. Eta kasu honek tan gauza bera.

Hau “consideración” deritzona da, eta auzitegiak egiten duena da bere iritzia eman, baina bere iritzia ez da gainjartzen norberaren iritzia gainean, beraz, kasu batean egiten ez duguna bestean ere ez.


Hace tiempo que nosotros hacemos eso mediante convenios, y en principio, siguiendo tu criterio, esos convenios deberían quedar invalidados y nosotros deberíamos hacernos cargo de ellos directamente. Y eso sería contrario al criterio de las escuelas. Así lo pusimos de manifiesto en la Comisión de Hacienda. Comunicamos que no estábamos de acuerdo, que nuestra opinión era tan válida como la del juzgado y que mantendríamos las cosas como estaban. Y en este caso lo mismo.

Esto es lo que se llama «consideración», y el Juzgado da su opinión, la cual no siempre prevalece a las demás. Por tanto, no debemos hacer en un caso lo que no hacemos en otro.



Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 19:10ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeki ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 19:10 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

OSOKO BILKURA · Ayuntamiento Pleno

Akta 2017ko Apirilaren 25a

Acta 25 de Abril de 2017